

E U S K E R A
U L E R M E N A

NOTA:

Gandasegi HLHI

3. maila

EUSKAL HERRIKO HIRIBURUETAKO KUTSADURA ERDIRA JAITSI DA

Ekologistak Martxan taldeak neurtu egin du nitrogeno dioxidoak eragindako kutsadura atmosferikoaren maila. Mugikortasun eredua aldatzeko eskatu du. Hala, herrietako abiadura muga orduko 30 kilometrora murrizteko eskatu dute.

2020ko maiatzak 4 12:58 Xabier Amuriza

Koronabirusari aurre egiteko neurriek airearen kalitateari eta kutsadurari ere eragin diote. Asko jaitsi dira errepideetako joan-etorriak, eta horrek eragin zuzena izan du kutsaduran. Hala, Ekologistak Martxan elkarteak aurkeztutako txosten baten arabera, konfinamendua hasi zenetik, Martxoaren 13tik, nabarmen murriztu da Euskal Herriko hiriburueta aire kutsadura. Aurreko urteko hilabete berdinarekin konparatuta, erdira murriztu da aireko kutsadura. Azken hamarkadan martxoan eta apirilean erregistratutako txikienak dira.

Gasteiz izan da kutsadura gehien murriztu duen hiria, iazko datuekin alderatuta erdia baino gehiago murriztu baita kutsadura: %58. Iruñean ere erdia baino gehiago gutxitu da kutsadura, %54. Donostian eta Bilbon, aldiz, gutxiago murriztu da kutsadura, nahiz eta hiriburu horietan ere nabarmen gutxitu den. Donostian %49 eta Bilbon %46.

Hau guztia kontuan hartuta, Ekologistak Martxan elkarteak Eusko Jaurlaritzari eman dio proposamen berri bat. Proposamen honen helburua, konfinamendua bukatzen denean egoera berriro lehen zenera ez bueltatzea da. Horrela, kutsadura murriztea lortuko da.



Testua irakurri eta erantzun galderei.

1- Zenbat jaitsi da Euskal Herriko hiriburuetakoko kutsadura?

- a) Laurden bat. b) Erdia baino gutxiago. c) Erdira.

2- Zein taldek neurtu du jaitsiera hori?

- a) Ekologistak Euskadin taldeak.
b) Greenpeace taldeak.
c) Ekologistak Martxan taldeak.

3- Zenbat murriztuko nahi dute ibilgailuen abiadura?

- a) 40 km/ordukora. b) 30 km/ordukora. c) 20 km/ordukora.

4- Zergatik jaitsi da konfinamendu garaian airearen kutsadura?

.....

5- Noiz hasi zen konfinamendu garaia Euskal Herrian?

.....

6- Zein izan da kutsadura gehien murriztu duen hiriburua?

.....

7- Zenbat gutxitu da kutsadura Iruñean?

- a) %58. b) %49. c) %54.

8- Zeinek murriztu du gehiago kutsadura, Bilbok edo Donostiak?

.....

9- Nori eman dio proposamen berri hau Ekologistak Martxan elkarteak?

.....

10- Zein da proposamen honen helburu nagusia?

.....

11- Baloratu proba zer iruditu zaizun.

OSO ZAILA

ZAILA

NAHIKO ERRAZA

OSO ERRAZA